

hondo-hondotik

Joseba Butron


(Irakaslea)

Nazionalistak eta abertzaleak

Andima Ibinagabeitia idazlea erbestean hil zen, euskaltzale asko bezala. Eta idatzita dago Parisko Euskal Etxean zera esan zuela: «Nazionalista asko dago hemen eta abertzale gutxi». Andimak ohar egin nahi zien, ahaztuta zeukaten-eta Aranaren ideia funtsezkoena, alegia nazionalista baten lehen xedea bere aberria dela, askatasuna. Historiak erakutsi digunez, kasu gutxi egin zioten. Franco hil arte itxaroten geratu ziren, ia ezer egin gabe, 40 urtean. Beno, zer edo zer egin zuten: faxismoaren kontra borrokan hasita zeudenei agiraka egiten zieten, itsusia zen eta. Abertzaleok bada-kigu hori.

1977an kongresua egin zuten nazionalistek, baina historiak erakutsi digunez, Aranaren dogma interpretatu ezinik edo ahaztuta segitzen dute. Esan esaten dute nazionalistak direla —espainolek ere laguntzen diete publizitate horretan—, baina dekoratu hutsa da, kartoi-harrizkoa. Edo, hobeto esanda, digitala, nazionalista horiek asko modernizatu dira eta. Arima saldu dute, baina teknologian eta gestioan meritu handiak egin dituzte, Inperioko nagusiak txunditzaile. Hain zuzen ere, lehengo 200.000.000.000 pta. ateratzen dizkigute urtero gure menperatzaile espainiarrei emateko, gure konkista gas-tuak finantzatzeko. Agian, biziko balitz Andimak gaur zera esango luke. «Estatutista asko dago hemen, eta abertzale gutxi». Izan ere, harritu egingo litzateke nazionalista horien kolaborazio eta estatutu zaletasuna ikusita. Arana ez dute aipatu ere egiten, *independentzia* hitza sinbolikoa da, jaiegun berezietako makillajea. «Independentzia eta soberania kontzeptu zaharkituak dira» publikatzen du nazionalista horien ordezkari gorenak. Horregatik esan du telebistan bere ekimenak ez dela «ez independentziarik, ez sezesiorik, ez horrelako astakeriarik» proposatzen. Argi eta garbi. Urte asko daramate errepikatzen Europa berrian ez dela egongo sobe-ranirik.

Baina abertzaleok ikusten dugu Europan gero eta estatu gehiago dagoela. Hainbat estatu berri, independente sortu dira horiek hori esaten digutenetik. Eta badakigu Euskal Herriak ere estatu moduan bakarrik izango duela leku duina Europan eta munduan. Horregatik nahi dugu independentzia. Asmo txarrik gabe, ba-



Andima Ibinagabeitia euskal idazlea.

tzuek esaten dute hobe dela kultura alde-tik Euskal Herri indartsua; pasaportea ez dela horrenbesterako. Abertzaleok, oster-a, ezin dugu ulertu zelan indartu daiteke-en gure kultura, zelan babes daitezkeen geure eskubideak estatu subirano izan ba-rik. Izpirituarekin igual. Adibidez, galdetu beharko diegu Baionako auzitegian —jus-tizia jauregi batean— euskaraz hitz egite-ko eskubidea eskatzeagatik birritan kol-patu eta gaseatu dituzten euskaldunei —euskaltzain adinekoak ere bai— ea kul-turalki indarberrituta atera diren espe-rientzia horretatik. Oraintsuko adibide bat baino ez gure historia luzean.

Historia da, baita, yankiak Amerikako indiarrei tratatu bat proposatu zuela. «Lur-rak eskaintzen dizkizuegu, eta gure mo-duan bizitzeko aukera, gizon zurien mo-duan». Eta buruzagi indiar jatorrak eran-tzun: «Ondo dago tratatuak proposatzea. Kontua da, ordea, gu lur hauetan bizi ga-re-la; ezin dugu ulertu zelan eman behar di-guzuen gu bizi garen lurra. Eta ondo dago gizon zuriaren moduan bizitzeko gonbita. Kontua da, ordea, guk geure moduan bizi-tzen segitu nahi dugula, aske». Eta aber-

tzaleok ondo ulertzen dugu erantzun hori, duintasuna zer den ez dugulako ahaztu. Zoritxarrez, nazionalista horiei estatutu-txo bat eskaini zieten, gure territorioaren zatiketa, eta haien parte izatea. Eta onartu egin zuten; eta abertzaleok botoetara ez ginen nahikoa izan kontra egiteko.

Gizon zuriek idatzi duten historiak dio, halaber, euren eta indiarrek itun eta paktu asko sinatu zituztela. Eta horrela erakutsi nahi izan dute dena ez zela inbasioa, konkista, zapalketa eta genozidioa izan. Pent-salari batek, baina, xehetasun txiki bat deskubritu zuen: itunak ingelesez baino ez zeuden. Indiarren hizkuntzan ez zegoen ezer idatzirik. Indiarrek zelan sinatu zituz-ten, ba, ulertu ezin zituzten dokumen-tuak? Abertzaleok asko dakigu horretaz; badakigu zelan.

Bada, nazionalista horiek kontatzen di-guten historiaren arabera, euskaldunok ere itunak egin ditugu Espainiako monar-kiekin eta; berdinaren artean, noski. Espai-niarekin izan dugun harreman historikoa itunetan oinarritu dela. Itun horiek aspal-dikoak direla diote (Gaztela euskaldunon Nafar Estatua konkistatzen hasi zen ga-

raitik honakoak, alegia; baina hori ez dute esaten). Itunen bat idatziz jasota dago, esaterako 1513koa, hegoaldeko nafarrek sinatu zutena, inbadituak eta sarraskituak izan ondoren. Armada espainiarra han geratu zen, badaezpada, ituna betearaz-teko. Gaur ere han dago. Berdinen arteko itunak. Eta hurrengo mendeetan bertako jauntxo botere eta diru zaleak, hegoalde-ko beste euskal lurraldeetakoak bezala, Amerikak egiten ibili ziren espainiarrekin. Gaur bezala. Bitartean Frantziak Ipar Euskal Herria beretzat hartu zuen, espai-nolen eredura, eta han geratu zen. Gaur arte. Badakigu Frantziak eta Espainiak egin dutena inperialismoa dela eta ilega-la, kolonialismoa ilegala deklaratu zen be-zala. Abertzaleok badakigu hori. Baina oraindik ez dugu kalte-ordainik eskatu. Iritsiko da.

Eta indarkeria aipatzen dutenean aber-tzaleok badakigu zer den hori. Sufrimen-duaz asko dakigulako. Ze guk ezagutu du-gun basatikeriarik handiena —kasurako, munduko koadrorik ospetsuenerako ima-jina geuk jarri genuen, Gernikan— Espai-niak eta Frantziak egin digutena izan da: gure herria eurentzat hartu, gure legeak debekatu, eurenak inposatu, eta genozi-dio kultural eta linguistiko sistematikoa, azken 200 urteetan azeleratua. Eta milaka eta milaka eta milaka hildako eta erbeste-ratu utzi dituzte denbora horretan. Ba-tzuen hezurak orain hasi gara lurpetik ateratzen, pertsona dagokien agurra eman ahal izateko behintzat, hori ere uka-tu baitigute. Baina abertzaleok badakigu, geure historiak gero eta gehiago dakigula-ko.

Azken baten, abertzaleok badakigu zer garen eta zer nahi dugun. Ez dugu etsi. Ba-dakigu euskara dela gure hizkuntza —eta guretzat ez da dekoratiboa—, eta Euskal Herri osoa dela gure aberria. Eta askata-suna nahi dugula: independentzia. Espai-nolekin eta frantsesekin bakean bizitzeko. Eta gogo hori ez digu inongo lege arrotzek ez Atxikipen Libreko itunek aldatuko. Igual aurtan, botoetara, espainiarrak ote garen jokatzeko proposatuko digute. Edo hibridoak. Edo zein den gure lur zatia. Edo autodeterminatzeko eskubiderik ote du-gun. Batek daki. Hor konpon. Abertzaleok 2003an ere duintasunez biziko gara. Gero historiak esango du. Aberri urte on aber-tzale guztioi.

esaldiak

«UPNk, haren Zeinuen Legearekin, gauza batzuk estali nahi ditu, baina herritarrak ez dira batere ergelak»

JOSE LUIS CASTEJON

(Nafarroako Parlamentuko presidentea)

«Espainiako hauteskundeak datorren igandean egingo balira, segur aski PSOEk irabaziko luke, baina joera alda daiteke»

JULIAN SANTAMARIA

(Zientzia Politikoetako katedraduna)

«Boluntario gehienak jende eredugarria dira, baina badira tartean okupa eta eskaleak ere, hondartzara agertzen ez direnak»

MANUEL FRAGA

(Galiziako Xuntako presidentea)

«ETAk nire aita hilko balu, mendekuaren bidetik joka nezake, baina politikarior objektibizatze ahalmena exijitu behar zaigu»

MARGARITA URÍA

(EAJko diputatua Espainiako Kongresuan)